

Ekintzailearen eguna

2008/05/13

ETEoko zikloetako ikasleak EJE (Empresa Joven Emprendedora - Enpresa Gazte Hezitzailea) deitzen den proiektu batean parte hartzen ari dira. EJE estatu mailako erakundea da eta ikasleengan ekintzailetasun izpiritua sustatzea du helburu, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektua da. Ikasleek kooperatiba bat sortu behar dute eta ondoren dagokien beste ikastetxe batekin harreman komertzialak izan behar dituzte. Enpresa bat sortzeko prozesua ezagutzen dute horrela. Guri egokitu zaizkigun ikastetxeak Almeria eta Madrilgoak dira.

Programa horren barruan ekintzailearen eguna ospatu da, maiatzaren 9an, goizez. Egun horretan ikasleek postu bat jarri zuten klustroan beraien produktuak saltzeko. Irabazien zati bat ekintza sozialetara bideratuko dute.

Bestalde, mahai inguru edota hitzaldi batzuk ere antolatu ziren (goizeko 10etatik 12etara). Bertan, ekintzaileak diren gazteak egongo ziren beraien esperientzia kontatuz. Parte hartu zuten: Waixe Mobile enpresa (Eskola Politeknikoa), Labeineko Manu Egaña eta Team Academy. Hitzaldien helburua, ikasleak ekintzaileak izatearen garrantziaz ohartaraztea eta esperientzia eta prozesua azaltzea izan zen: zergatik erabaki zuten enpresa sortzea, proiektua-produktua azaltzea, zer gauza on eta txar ematen duen, nola ikusten duten etorkizuna...

